

Forma

Pausalekua eskaini nahi diet hitzei eta zalapartaka hartzen ditut, ez diet ematen atsedetik, arnasestuka dabilzkit, ez diet uzten jalkitzen. Herio batean esnatzen ditut, altxa, munduari forma ematera joan behar duze, dena izendatu berriro ere, izena jarri nire ezinegonari, berriro ere: zera ez da urdina, ezta zera ere, ni zuria naiz, ni gizona naiz, hitzak ez dira berez etortzen, hitzak ez datoz munduaren sorreratik, munda sortzen dute uneoro, herria, dorrea, orria, hitzek ez naute aukeratzeko, zer naiz ba ni, nik aukeratzeko ditut, inork agindu gabeko



Jira
Xabier Gantzarain

eginkizun bati emana bizi naiz: osatu nauten diskurtsoak osatzen segitzen dut, doktrina zabaltzen ari naizen beldurak hartzen nau, hitzik arruntenen giltzarrapoan gatibatzen dudala jendea.

Askatasuna eskaini nahi diet hitzei eta kartzelan sartzen ditut, doktrinara ekartzen ditut nahi gabe, gatibu dauzkat, uste ez ditudan doktrinak daramatzat arrastaka: esaten dudana baino ezin dut esan, ikusten ez diren kateak dira hausten zailenak, osatu nauten diskurtsoak osatzen segitzen dut, osatu nauten doktrinak osatzen segitzen dut, ni gizona naiz, zuria naiz, europarra naiz, euskalduna. Zein dira osatu nauten diskurtsoak? Eta doktrinak?

Amodioa

Gaztelaniaren hurbiltasunak ekarriko zion euskarari gauza onik, baina euskaldunon harremanetan eragin eska izan dute erdarakadek. Euskaldunok berbakoak izateko fama daukagu, baina sexu kontuetan estereotipo latzak eraiki dizkigute: kosta egiten zaigu sentimenduak azaltzea, Euskal Herrian ez da ligatzen... ez dut esango hori hala ez denik, baina gaztelaniak badauka errua horretan. Ez dakit historiako zein momentutan, eta nork erabakita, baina egun batean, gaztelaniaren eragin garbiz, larrutan egiteari sinonimo poetikoa asmatu genion: amodioa egin. Badi-



Bira
Onintza Enbeita

tut lagunak halakorekin eta bestelakorekin amodioa egin dutela kontatzen datenak, baina nik nahiago dut halako beharlekurik ez hartu. Izan ere, amodioa gaizki edo ondo, eginda dago. Aspaldiko kontua da. Asko jota, harremanak ondo ateratzen direnean edo pasioak denboran irauten duenean, amodioa berrasmatu egingo dut izara artean lantzean behin, baina gainontzean oso sinplea naiz. Nahiko konplikatu da berez aurrean biluzik duguna ulertzea, mugimenduak sinkronizatzea, gustatzen zaiguna zer den esplikatzeko, bera gu bezain gustura sentiaraztea eta gaurkoa amaitu eta gero biok zer nahi dugun definitzea, gainetik amodioa ere egin behar izateko. Barkatuko didazue, baina larrua jotzea askoz errazagoa da.

Zuzendaria:
Martxelo Otamendi
Zuzendariordea:
Iñaki Petxarroman
Edizio arduraduna:
Andoni Alvarez
Argitaratzailea:
Euskal Editorea SM
Publizitatea: Bidera
publizitatea
Lege gordailua:
SS-0662/03
Batzorde parekidea:
0712184059

Egoitza nagusia:
Martin Ugalde kultur parkea.
Gudarien Etorbidea, z/g.
20140 Andoain.
Telefonoa:
(0034) 943-30 40 30
Faxa: (0034) 943-30 09 43
Webgunea:
www.berria.info
Posta elektronikoa:
berria@berria.info
Publizitatea:
publi@bidera.eu
Harpidetza saila:
(0034) 943-30 43 45

Date: 22/02/2012
Exemplaire: 2.690
Editeur: Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication:
Martxelo Otamendi
Comission paritaire:
0712184059
Delegation Labourd:
Lisses 3, 64100-Baiona.
Tel.: (0033) 559256220.
Fax: (0033) 559254303.
E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK
Araba: Bizenta Mogel, 6.
Posta kodea: 01008
Gasteiz. Telefonoa:
945-15 04 52. Erredakzioko
faxa: 945-14 83 07.
Posta elektronikoa:
araba@berria.info.
Bizkaia: Uribitarte kalea, 18,
3. C. Posta kodea: 48001
Bilbo. Telefonoa:
94-435 26 00. Erredakzioko
faxa: 94-423 49 75.
Posta elektronikoa:
bizkaia@berria.info.
Lapurdi: Lisses, 3, Posta
kodea: 64100 Baiona.
Telefonoa: 559-25 62 20.
Faxa: 559-25 43 03.
Posta elektronikoa:
lapurdi@berria.info.
Nafarroa: Iratxeko Monaste-
ria, 45, 13. Posta kodea:
31011 Iruñea. Telefonoa:
948-36 66 22.
Publizitatea: 948-36 66 23.
Posta elektronikoa:
nafarroa@berria.info.

berria

Txillardegia eta marxismoa

Jon Sudupe
Saiakera egilea

Aspaldi ez dela, marxismoa modan egon zen gurean, bai teoria bezala eta bai politika bezala. Arazo ideologikoa ez ezik, arazo politikoa ere bazen euskal ezkerrentzat. Eztabaida eta liskar biziak izan ziren marxismoaren eta nazio arazoaren inguruan, eta hamaika tentsio eta zatiketa eragin zuten. Rikardo Arregik ohartarazi zuen bezala, euskaltzaleasunaren eta sozialismoaren artean, adiskidetasuna egon beharrean, borroka isila —eta are etsaigoa— egon zen.

Txillardegik ezkertiarzat zeukan bere burua, baina inola ere ez marxistatzat. Alde batetik, nola baiteko estimua zion Marxi. «Gizona aparta eta jakintsu ikaragarria» zela zioen. Marxen ekarpenaren zati bat zientzi ekarpenatzat zeukan: «Marxi alde aurretik eta entzun ere gabe uko egitea, denbora galtzea da; Einstein, Freud edo Saussure-ri osotara uko egitea denbora galtzea den bezalatsu.» Materialismo historikoaren ideia nagusiak ontzat ematen zituen.

Baina, bestetik, alderdi arrisku-
tsu ugari sumatzen zizkion Marxi: eskatologia nabarmena, eskolastika gorria, nazioaren kontrako joera... Beldurra zion «marxismoa bezalako pentsamolde totalitarioei.» Hala, sarritan aipatu ohi zuen bere Bertrand Russell miretsiaren Boltxebismoaren praktika eta teoria, komunismoaren izaera totalitariao azpimarratzen duen saio lana. Joxean Agirrerekin izandako so-

lasaldian adierazi zionez, ez zuen inoiz «Marxen zorabioa» ezagutu, Rikardo Arregik bezala. «Marx eta Engelsen testu gehienak aspergarri egin zitzaizkidan», aitortu zuen. Kapitalismoa suntsitzeko premia onartzen zuen («berez gaiztoa eta onartezina baita»). Horregatik, begi onez ikusi zuen sozialismo autogestionarioa, baina biziki gorrotatu zuen komunismo totalitarioa. («Marx ezkertiarra izan zen; baina Errusiako gaurko komunixtarik gehienak kontserbadore hutsak dira», dio *Huntaz eta Hartaz*-en). Estalinismoa zuen beti gogoan.

Gogora ekartzea merezi du Txillardegik eta Rikardo Arregik elkarrekin izan zuten eztabaida famatua. 1967ko artikulua batean, «Sozialismoa modan dago» idatzi zuen andoaindarrak *Jakin* aldizkarian. R. Arregik lau postura antzematen zituen euskal belaunaldi berrian, eta horien artean «marxismoarekiko idikia» jotzen zuen jatorrena. Berak zioenez, «Herri bakoitzak sozialismorako bere bide egokia izatea derrigorrezkoa da, baina naziotasuna klasearen batasunetik kanpo pentsatzea sozialista joera batean inola ere onartu ezin ditokeana da.» Nazioa, politika sozialista batean, ezin daiteke klase sozialen ginetik jarri.

Azkar asko erantzun zion Txillardegik, luze eta zakar antzean, «Marxismoa modan egon zen» esanez. Marxismoa, «bete-betean XIX. mendeko asmakaria denez,» ezin da gauza berrizat hartu. Marxismoak nabarmenki huts egin du: «Agindu zituen aldakuntza miragarriak gertatu ez diralako; eta, horien orde, eta marxismoa beti

gidari eta nagusi, belzkeria eta hilkintza ikaragarriak gertatu diralako 1917tik.» R. Arregik ez bezala, nazioa jartzen zuen klase sozialen ginetik.

Ez zuen euskaltasuna eta marxismoa ezkondu beharrik ikusten, hortaz. Horrela, V. Biltzarrean marxismo-leninismoa onartu zenean, ETAtik irtetea erabaki zuen Txillardegik. Uste zuen frankismoak berak eragin zuela komunismoa gurean, «abertzaleasuna hozteko eta ahazteko.» Ezker abertzalean ere marxismo-leninismoa nagusitu zelakoan zegoen.

Laburki esanda, monista, determinista, dogmatikoa, totalitarioa, arkaikoa eta utopikoa iruditzen zitzaion marxismoa (jakina, inolako bereizketarik ez Marx gaztearen eta helduaren artean). Baina egia ote da hori guztia?

Orain dela gutxi eman da argitara gaztelar Terry Eagleton ingeles intelektual ezagunaren *Why Marx Was Right* liburu bikaina (*Por qué Marx tenía razón*, Península, 2011). Kulturaren eta literatu-

Marx «berrirakurri» egin behar da, berriro iturrira joanez. Horrela konturatuko gara Txillardegia oker zegoela Marxi buruzko iritzi batzuetan

raren kritiko ospetsuak ez du Marxenganako mirespena ezkututzen: gogoko du bai pentsalari bezala eta bai pertsona bezala. Baina ez da dogmatikoa, hutsegiteak ere onartzen dituen marxista irekia baiziki.

Zein da marxismoaren ezaugarri berezia? Iraultza? Klase sozialak? Klase borroka? Bistan da ezetz. Marx baino lehenagoko ideiak baitira. Eagletonen ustez, klase borrokaren eta produkzio moduaren arteko loturak bereizten du marxismoa. Historiaren teoria berezi bat dela esan daiteke. Marxez «Historia kontinentea» aurkitu zuen (Althusser dixit).

T. Eagletonek zehatz-mehatz aztertzen ditu Marxi egin zaizkion hainbat objektzio. Modu argi eta atseginean, banan-banan ezeztatzen ditu alemaniar filosofoaren pentsamenduari buruzko iritzi okerrak. Gezurtatu egiten ditu Txillardegirenak bezalako salaketak. Marxen defentsa egiten du, marxismoaren hutsegiteen kontra. Marxismoaren izenean egingadako krimen guztien erantzukizuna ez zaio *Kapitala*-ren egileari egotzi behar.

Marxez, Londonen erbestertua, bertatik ezagutu zituen Cityko finantza izualdiak 1857an, 1866an eta 1873an. Gaur bezalaxe, orduan ere «merkatuek» hankaz gora jarri zuten mundua. Berlingo harresia erori ondoren, marxismoa hiltzat jo zuten gehienek. Gerroztik, liberalismoaren garaipenak ezin dudatuzkoa zirudien. «Historiaren amaieraz» mintzatu zen F. Fukuyama. Harik eta ekonomia-aren krisiak eztanda egin eta Marxen mamua berpiztu duen arte. Marx bueltan da berriro.

Marx egiaz ezagutu nahi izanez gero, T. Eagletonen liburu argigarria arretaz irakurtzea komeni zaigu. Treveristarra oker interpretatua izan da askotan, eta haren ideiak desitxuratu egin dituzte alde batekoek zein besteok. Marx «berrirakurri» egin behar da, berriro iturrira joanez. Horrela konturatuko gara Txillardegia oker zegoela Marxi buruzko iritzi batzuetan.